



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK

1. Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2023. urterako	2
2. Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2023. urterako	4
3. Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2023. urterako.....	6
4. Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak 2023ko ekitaldirako	8
5. Euskadi 2030 ZTBPre "Hiri jasangarriak" aukera-nitxoaren helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak, BAI+D+i programa	10
6. Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE).....	12
7. Alokairua sustatzeko dirulaguntzak.....	14
8. Gaztelagun Programa	18
9. Salmentarako babes publikoko etxebizitzak	20
10. Partikularrek eta auzotarren erkidegoek birgaitze-obrak egiteko dirulaguntzak, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko, eraikinen egiturazko kontserbazioa eta mantentzea hobetzeko, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea errazteko eta energia-kontsumoa murrizteko	22
11. Eraldatze eta erresilientzia planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. Programak (Next Generation EU)	26
12. Euskal Autonomia Erkidegoko bizitegi-eraikuntzaren sektorean kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntzaren kalitate arkitektonikoa eta jasangarritasuna sustatzeko eta berrikuntzari laguntzeko dirulaguntzak, Eraikal 2023 programa	28
13. Birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak. 3. lerroa.....	32
14. Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-diseinua eta arkitektura garaikidea sustatzeko eta hedatzeko laguntzak.....	34



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Jarduera bertan behera uztea dela-eta, bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntzak, 2023. urterako

2.- Araua

Agindua, 2023ko apirilaren 25ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez deitu eta arautzen baita jarduera bertan behera uztea dela-eta bidaiarien eta salgaien garraio publikoaren sektorerako laguntza-programa bat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/05/2302097e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira errepideko garraio publikoaren sektorearen arazoetako bati aurre egiteko, hain zuzen ere, garraiolari autonomoen adin handiari. Hori dela-eta, egokitzat jotzen da lan-bizitzaren zatirik handiena errepideko garraio publikoaren sektorean eman duten adineko profesionalek jarduera uztea sustatzea, eta hartarako, beharrezko baliabideak jarriko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2022ko ekitaldian eskatzaileen konkurrentzia handitu ondoren, programaren aurrekontu-zuzkidura 2023ko ekitaldirako 450.000 eurora igotzea erabaki zen, aurreko urtean egin zen bezala, Aginduaren ondorengo aldaketa bat egin beharrik ez izateko.

2023ko ekitaldiko programaren emaitzei dagokienez, bi fase bereizi behar dira:

- Eskabideak eta laguntzak ematea: 44 eskabide aurkeztu dira, aurreko ekitaldikoa baino askoz gutxiago izan arren, eta hirugarrena izan da 2012tik. Berriz ere, laguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen ez zituzten eskaeren intzidentzia handia gertatu da. Hala, 44 eskaeretatik 13 ukatu egin ziren laguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzeagatik, eta, ondorioz, 254.000,00 euro eman ziren.

- Emandako laguntzaren justifikazioa eta exekuzioa: Exekuzioari dagokionez, 201.900,00 euro ordaintzeko agindu da. Emandako 31 laguntzetatik, 4 onuradunek uko egin zioten laguntzak kobratzeari, eta beste 4ri, berriz, emandako laguntza kobratzeko eskubidea galdutzat eman zaie. Eskatzaile batek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu du, baina oraindik ebazteke dago, baina emaitza negatiboa izango da ziurrenik.



Interesdunek eskatutako zenbateko osoa eman eta gauzatu bada, ziur aski laguntza-programari esleitutako zenbateko osoa egikarituko zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Garraiorako baimenari uko egiten dioten garraiolarien kopurua	38	23 (31 emandakoak)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesionalentzako eta enpresarialentzako diru-laguntzak, 2023. urterako

2.- Araua

Agindua, 2023ko maiatzaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko errepideko garraioaren sektoreko elkarte profesional eta enpresarialei laguntzak emateko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302762e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko elkarte profesionalen eta enpresarialen jarduera eta ekimenei laguntzeko. Helburua da erakunde horiei laguntzak emateko mekanismo bat ezartzea, uste baita elkarte profesionalak eta enpresarialak gai direla sektorean dauden gabeziak betetzeko behar diren ekimenak sortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu horretan 2023an aurreikusitako laguntzak finantzatzeko, 120.000 euroko zenbatekoa kalkulatu zen, aurreikusitako eskaeretara eta zenbatekoetara egokitzen zela iritzita.

Laguntza horiek 6 espedientek eskatu dituzte (eskabide 1 ez zetorren bat programaren eremuarekin), eta, beraz, ezetsi egin zen. Espediente horietatik 5 espedienteri eman zaizkie laguntzak (74.290,62 euro), eta 71.726,12 euro egikaritu dira. Esan behar da aurten programan parte hartu ohi duen elkarteetako batek ez duela eskaera garaiz eta behar bezala aurkeztu, eta, beraz, ezin izan duela laguntzarik jaso. Horrek ere eragin nabarmena izan du programaren emaitzan.

Programaren eta lortu nahi diren helburuen betetze-mailaren ebaluazioari dagokionez, 2023an izandako emaitzak (6 eskaera eta 5 onuradun) Plan Estrategikoan (2021-2024) aurrez ezarritako helburuetara hurbiltzen dira, baina egia da hurrengo laurtekorako 8 eta 6 elkarte arteko magnitudeak aldatu beharko direla egungo errealitatea islatzeko; hala eta guztiz ere, erantzuna egokitzen jotzen da, eta, beraz, aurreikusitako programa bete dela uste da.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Elkarte eskatzaileen zenbatekoa	8	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko diru-laguntzak 2023. urterako

2.- Araua

Agindua, 2023ko maiatzaren 16koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez laguntza-programa bat ezartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak bultzatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/05/2302436e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntzak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak ezartzeko. Lortu nahi den helburua da zerbitzua emateko garaian segurtasuna, kalitatea, gardentasuna eta bizkortasuna handitzea; alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, zerbitzua azken belaunaldiko produktuekin modernizatzeko aukera emango diolako, eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzu bat jasotzen duelako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2022ko ekitaldian konkurrentzia eta lortutako helburuak murriztea koiunturazkotzat jo zen urte hartan gertatutako inguruabar jakin batzuetan, 2023ko memorian xehetasunez azaldu zen bezala. Hori dela eta, diruz laguntzeko elementu berriak sartzearekin batera, urte horretarako aurrekontu-zuzkidura 180.000 eurora arte handitzea ahalbidetu zen.

2023an programaren eta lortu nahi diren helburuen betetze-mailaren ebaluazioari dagokionez, azterketa prozesuaren bi une bereizitan banatzen da.

- Laguntzak ematea: Aurkeztutako eskabideen kopuruari dagokionez, emaitza programaren historiako bigarren txarrena izan da, 5 enpresa baino ez baitira interesatu laguntzetan. Emandako zenbatekoari dagokionez (36.365,90 euro), espero zena baino askoz txikiagoa da. Zuzendaritza honek aukera izan du aurtun laguntza eskatu ez duten eta laguntzak eskatzeko eperik ez dutela argudiatu duten hainbat enpresekin kontsultatzeko, neurri batean aurreko ekitaldietan baino lehenago deitu zirelako, proposamenak epearen barruan aurkezteko eragozpen nagusi gisa. Era berean, ez da erraz ulertzen orga



jasotzaileak hobetzeko edo eguneratzeko eskaerarik jaso ez izana, elementu hori sartu izana logistikaren eremuko ordezkariak garrantzitsua duten elkarten proposamenak aztertu eta baloratzearen emaitza izan denean.

- Betearazpena (ordainketa): 5 enpresa onuradunek behar bezala justifikatu dituzte egindako inbertsioak, horietako batek izan ezik; izan ere, emandako laguntzaren zenbatekoa baino inbertsio txikiagoa egin dutenez, laguntza murriztuaren zenbatekoa ikusi dute, eta, beraz, 34.574,69 euro ordaintzeko agindua eman da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Eskatutako diru-laguntzak	15	5



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak 2023ko ekitaldirako

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 11koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezarri eta 2023ko ekitaldirako deialdia egiten duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Deialdia: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303564e.shtml>

Ebazpena: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305670e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Aginduaren xedea da udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzea eta deialdia egitea, 2023ko ekitaldirako.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bateginak honako hau adierazten du 3.5 artikuluan: EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, haietan guztietan ezar dadin desberdinkeriak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontu-zuzkidura 200.000 eurokoa izan da.

Seigarren deialdian (2023) 2017ko ekitaldian ezarritako ildoari eutsi zaio (2018an, 2019an eta 2022an egindako doikuntzekin) eta beste doikuntza batzuk egin dira (dirulaguntzaren ehunekoa handitu da -% 90etik % 100era- eta dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa eguneratu da -KPIaren aldaketa-), eta, bestalde, lehendik dagoen hiri-antolamenduko espazio publikoaren antolamenduari buruzko dokumentuak diruz laguntzeko aukera sartu da.

Hamaika udalek aurkeztu dute eskaera eta bederatziz izan dira diruz lagundutakoak (bat Arabakoa, bost Bizkaikoak eta hiru Gipuzkoakoak); bi eskaera ukatu dira. Diruz lagundutako udal horietatik hiruk HAPOaren berrikuspina dute ardatz, batek zentralitate-eremu bat (eremu horren antolamendua berriz aztertuko da; egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren mailan), beste batek bizitegi eremu bateko antolamendu xehetua, eta gainerako lau udalek dagoen hiri-antolamenduaren espazio publikoaren antolaketa (hau da, Agindu honek jaso duen aukera berria dute ardatz). Diruz lagundutako



udaletako bat aurreko deialdian uko egin ziona da (betebeharrak ezarritako epean betetzea ezinezkoa zela egiaztatu ondoren).

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 101.154,92 euro izan da, horretarako dagoen aurrekontuaren % 50 (200.000 euro).

Udal hirigintza-plangintzako tresnetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa:

- HAPO berrikusteko prozesuan 3
- Hiri Antolamenduko Plan Berezian 1
- Plan Partzialean 1
- Dagoen hiri-antolamenduaren espazio publikoa 4
- Hirigintza-tresnak eta -dokumentuak guztira 9

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
	<u>2021-2024</u>	<u>2021-23</u>
Genero-ikuspegia txertatzeari buruz egindako analisi-dokumentuen kopurua.	40 (10/urte)	17 (6/urte)



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskadi 2030 ZTBPren "Hiri jasangarriak" aukera-nitxoaren helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzak, BAI+D+i programa

2.- Araua

Agindua, 2022ko abenduaren 12koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, BAI+D+i programako Euskadi 2030 ZTBPren "Hiri jasangarriak" aukera-nitxoaren helburuak lortzen lagunduko duten ideia eta proiektu berritzaileak garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2022/12/2205525a.shtml>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2023/05/2302452a.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Estatuko edo nazioarteko hainbat unibertsitatetako ikerketa-taldeentzako eta erakunde publiko eta pribatuentzako dirulaguntzak, hiri-inguruneen hiri-berroneratzearekin, paisaiarekin edo kulturarekin lotuta, Euskadin hiri-konponbideei lotutako sektore berrian I+G+b gaitasunak garatzea helburu dutenak, "ZTBP 2030eko Hiri Jasangarrien Aukerako Lurraldea" izeneko taldearen barruan. Lortu nahi den efektua hiri-irtenbideei lotutako sektore berriaren I+G+b gaitasunak garatzen eta hobetzen laguntzea da, identifikatutako hiru trantsizioetan eta Euskadiko Hiri Agendan (BULTZATU 2050: Teknologiko-digitala, energetiko-ingurumenekoa eta demografiko-soziosanitarioa) eraginez.

BAI+D+i programaren helburua, beraz, honako hauek bultzatzen dituzten proiektuak bultzatzea da:

- Hiri-berroneratzeari ikuspegi integrala ematea, eta, ahal den neurrian, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-berrikuntzako elementuak biltzea.
- Hainbat alderdiren integrazioa sustatzea, hala nola digitalizazioa, auzo kalteberen eraldaketa, natura hirian integratzea, zahartze aktiboko konponbideak sustatzea, ekitatea, kultura eta abar.
- Berehalako beharriak dituzten auzoetan aplikatu daitezkeen irtenbideak ematea, etorkizunean antzeko ezaugarriak dituzten beste auzo batzuei ere erantzun ahal izateko.
- Oinarri teknologikoko edo ez-teknologikoko berrikuntza disruptiboko produktuen eta soluzioen ekimenak, ekintzak eta garapena sustatzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Hiru eskabide eman ziren, Aginduan bideratutako aurrekontu osoaren arabera. Hauek dira diruz lagundutako proiektuak:

- Horma berde batek ingurumen-kutsadura handiko hiri-espazioetan kutsadurarekiko esposizioa murriztean duen inpaktua ebaluatzeko azterlana. Diruz lagundutako zenbatekoa (37.106,29 €)
- Eraikitako egoerak eraldatzeko estrategia. Diruz lagundutako zenbatekoa (100.000 €)
- Mapa interaktiboa, herritarren benetako beharrak, hautemandakoak eta sortzen ari direnak ezagutzeko tresna gisa. Hiria berroneratzeko prozesuak eta prozesu endogenoak eraginkortasunez kudeatzeko oinarri bat. Diruz lagundutako zenbatekoa (62.359,77 €)

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Sortutako energia-komunitateen kopurua	4	0
Azalera handitzeko jarduketak dituzten OE proiektuen kopurua	4	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE)

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate ebazpena (EHAArako hiperesteka)

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena (EHAA 119, 2015. URTEA)

147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa (204. zenbakiko EHAA, 204. zk., 2023ko urriaren 25ekoa).

4.- Dirulaguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Etxebizitzaren 3/2015 Legeak etxebizitza izateko eskubide subjektiboa (EES) aitortzen du. Horretarako, etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat jarriko da alokairuan, baita etxebizitza libre bat ere, baldin eta eskuragarri badago bitartekaritza-programengatik edo beste arrazoi batzuegatik.

Etxebizitzarik edo bizitokirik ez badago, eta izaera subsidiarioarekin, prestazio ekonomikoen sistema bat ezarri behar izango da.

Eskatzaileen eskura etxebizitza edo bizitoki bat jarriko dela bermatu nahi da, alokairu-araubidean eta, halakorik ezean, prestazio ekonomiko baten bidez.

147/2023 Dekretuak DSV eta EPEren kudeaketa eta izapidetzea garatzen ditu, eta 2024ko apirilaren 2an jarri zen indarrean.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko abenduko egoera honela ebatzitako 16.520 eskabidetan laburbiltzen da, etxebizitzarako eskubide subjektiboarekin: 3.158 eskaera etxebizitza esleitzeko lehentasunarekin, 2.620 etxebizitza esleituarekin eta 2.208 etxebizitzarako prestazio ekonomikoarekin (EPE); gainerako 373 eskaerak iraungitako EPEak dira. 2023an 2.520 espediente zenbatu dira (758 gizoni dagozkie eta 1.764 emakumeei).



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Aitortutako EES duten etzekoen unitateen kopurua	12.000	8.359
EPE ordainketa	3.772.400	7.695.045



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Alokairua sustatzeko dirulaguntzak

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

BOE araubidea:

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: “2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa”. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

BOEen gehieneko prezioak:

- AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa (2022ko uztailaren 14ko EHAA, 136. zk.).
- AGINDUA, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa. (2012ko urriaren 31ko EHAA, 211. zk.).
- AGINDUA, 2012ko abenduaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, honako agindu honetako akatsak zuzentzeko dena: “2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa”. (2012ko abenduaren 28ko EHAA, 251. zk.).

Alokairua sustatzea:

- AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzaren eta bizitoki-erakinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketari buruzkoa. (2021eko abenduaren 20ko EHAA, 252. zk.).

Finantza-erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena:

- 210/2019 DEKRETUA, abenduaren 26koa, kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa,



eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa. (2020ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.).

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa:

- 144/2019 DEKRETUA, irailaren 17koa, Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena. (2019ko irailaren 30eko EHAA, 185. zk.).
- AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuarena, etxebizitza-programen zenbatekoak eguneratzeko dena. (2021eko urriaren 15eko EHAA, 206. zk.)

Alokairu eskuragarria

- AGINDUA, 2022ko urriaren 14koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairu eskuragarriari buruzkoa. (EHAA, 211. zk., 2022ko azaroaren 4koa)

3.- Programaren araua, deialdia eta emate ebazpena (EHAArako hiperesteka)

3/2015 Legea, Etxebizitzarena (EHAA 119, 2015. URTEA)

Agindua, 2023ko ekainaren 7koa, 2023ko etxebizitza-kredituei buruzkoa (EHAA, 114. zk., ekainaren 16koa).

4.- Dirulaguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da etxebizitza eskuratzea sustatzea, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuta.

Helburua da alokairu babesturako etxebizitzaren sustapena diruz laguntzea, etxebizitzak alokairu babesturako erosteko dirulaguntzak ematea eta zuzkidura-bizitokien sustapena diruz laguntzea. Errentamendua sustatzeko ildo horretan, landa-inguruneko udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak ematen dira.

Halaber, etxebizitzaren aldi baterako lagapena barne hartzen da, errentamendu babesturako, Jaurlaritzaren jabetzako etxebizitzak, zuzenean kolektibo jakin batzuei esleituak.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

ERRENTAMENDUA SUSTATZEA

Lehiarik gabeko konkurrentzia-araubideko dirulaguntzak dira errentamendua sustatzeko dirulaguntzak, hau da, errentamendu babesturako etxebizitzak sustatzeko dirulaguntzak, errentamendu babesturako etxebizitzak erosteko dirulaguntzak, zuzkidura-bizitokiak sustatzeko dirulaguntzak eta landa-inguruneetan udal-etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak. Urtero, sailburuaren agindu baten bidez, dirulaguntza-lerro honetara bideratutako kredituen berri ematen da.

2023ko ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura 21.000.000 eurokoa da, urte anitzekoa 2023/2025.

2023an, errentamendua sustatzeko laguntza hauek ebatzi dira:

- Errentamendu babesturako laguntzak: 6+11+8 etxebizitzako hiru sustapen, guztira 1.272.000,00 euroko dirulaguntza dutenak
- Zuzkidura-bizitokiak: 28 zuzkidura-bizitokiko sustapen bat, 1.400.000,00 euroko dirulaguntzetan eta 1.253.976,06 € subsidioetan
- Landa-birgaitzea: 143+124+101 etxebizitzako hiru sustapen, 16.560.000,00 euroko dirulaguntzetan

Gainera, Sailak 24 zuzkidura-bizitokien sustapen bat hasi du Zumarragan.

Amaitzeko, alokairuko 621 etxebizitza hasi dira: 172 Sailarenak eta 449 VISESArenak.

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa

ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programaren helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak alokairuko merkatura bideratzea arrazoizko prezioan errentarientzat (1.1.d helburua).

Aseguru-polizen bidezko berme-sistema bat ezartzen da, ez-ordaintzeak, gerta daitezkeen kalteak eta laguntza juridikoa estaltzeko, etxebizitza hutsen jabeek programan parte har dezaten sustatzeko.

Jabeei eskainitako bermeen truke, Eusko Jaurlaritzak, etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren bitartez, alokairuen gehieneko prezioak finkatzen ditu, merkatu librean baino prezio baxuagoak eta lehiakorragoak bermatuz, eta, horrela, inguruabar sozioekonomikoengatik merkatu horretatik kanpo geratzen diren etxebizitza-eskatzaileek alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera handiagoak izango dituztela bermatuz.

Eusko Jaurlaritzak Bitartekaritzan Agente Laguntzaileen Sarea sortu du. Sare horrek hainbat eginkizun garrantzitsu hartuko ditu bere gain, aipatutako programa abian jartzeko eta martxan jartzeko.

Sortu zenetik eta 2023an, 19 agente laguntzaile inskribatu dira programan, lurraldeka honela banatuta:

- Araba: 2
- Bizkaia: 5



- Gipuzkoa: 10, hiru lurralde historikoetan bulegoak dituena
- Araban eta Bizkaian bulegoak dituen erakunde 1 ETIKALIA

2023an, ASAPen etxebizitza-parkeak 215 etxebizitza ditu.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Alokairuko etxebizitzaren sustapen berriak	750	645
Zuzkidura-bizitokien sustapenak eta etxebizitzak errentamendua sustatzeko programan	100	53
ASAP programa	500	215
Etxebizitza berriak alokairu eskuragarrian	600	368



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaztelagun Programa

2.- Araua

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena.
- AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautu eta deialdia egiten duen agindua.
- AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza programen zenbatekoak eguneratzeko dena.
- AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eta ALOKABIDE SA sozietate publikoaren arteko hitzarmena, Gaztelagun programaren alokairurako laguntzak kudeatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate ebazpena (EHAArako hiperesteka)

AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena. ([2018ko abenduaren 28ko EHAA, 249. zk.](#))

AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautu eta deialdia egiten duen agindua. ([2019ko abenduaren 17ko EHAA, 239. zk.](#))

AGINDUA, 2021eko irailaren 17koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza programen zenbatekoak eguneratzeko dena. ([2021eko urriaren 15eko EHAA, 206. zk.](#))

AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Gaztelagun programaren etxebizitza-alokairurako laguntzak. ([2022ko maiatzaren 6ko EHAA, 87. zk](#))

AGINDUA, 2023ko ekainaren 7koa, etxebizitza-kredituei buruzkoa ([BOPV nº 114 de 16 de junio](#))



4.- Dirulaguntza programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programak etxebizitza eskuratzea sustatu nahi du, baliabideak lehentasunez alokairura bideratuta, gazteen emantzipazioa erraztuz.

2023ko ekitaldian, helburua 4.500 ebazpen ematea da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Diruz lagundutako zenbatekoa, guztira: 8.647.191,23 euro.

ALOKABIDEk, programaren kudeaketan laguntzaile den aldetik, zenbateko hau jaso du kudeaketa-gastuengatik: 984.725 euro.

2023ko abenduan, 2.367 eskaera aktibatu ziren Gaztelagun programan: 379 Araban, 1.330 Bizkaian eta 658 Gipuzkoan. Pertsona bakoitzaren batez besteko errenta 674,21 € izan da, eta 245,95 euroko dirulaguntza, hau da, errentaren gaineko dirulaguntzaren % 54,59.

2023an 2.367 espediente eman dira: 1.055 gizoni eta 1.305 emakumeri (zazpi ezkabidetatik ez dugu daturik), 4.261.970,55 euroko zenbatekoarekin.

Programa hasi zenetik 6.629 eskaera aktibatu dira, eta batez besteko dirulaguntza 246,81 eurokoa izan da. Batez besteko errenta 662,10 € da.

Hasieratik emandako dirulaguntzen zenbatekoa 17.989.490,23 €-koa da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Alokairua ordaintzeko prestazioen gazte onuradunen kopurua	4.500	6.629



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Salmentarako babes publikoko etxebizitzak

2.- Araua

3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

- 39/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa. (2008ko martxoaren 28ko EHAA, 59. zk.).
- AGINDUA, 2021eko abenduaren 7koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, alokairua eta etxebizitzaren eta bitoki-eraikinen bestelako erabilerak sustatzeko jarduketei buruzkoa. (2021eko abenduaren 20ko EHAA, 252. zk.)
 - 268/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, kreditu-erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko finantza-lankidetzari buruzkoa, etxebizitzaren eta lurzorua arloan. (EHAA, 247. zk., 2011ko abenduaren 30a).
AGINDUA, 2022ko ekainaren 30ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokiaren kanona zehazteari buruzkoa (2022ko uztailaren 14ko EHAA, 136. zk.).
